

EUSKARA

GAIA	EGINDA	EGITEKO
<ul style="list-style-type: none"> ERABILERA BULTZATU 	<ul style="list-style-type: none"> Berbalaguna proiektua sendotzeko baliabide gehiago ipini dira. Bertako euskalkia hobeto egiteko ikastaroa antolatu da helduentzako. Bertako euskalkian jolas egiteko proiektua martxan da Haur Hezkuntzako ikastetxeetan. Bertako euskalkia hobeto ezagutzeko GEURIA esku-orria banatzen da ikastetxeetan. Hika ezagutzeko ikastaroa egin zen eta hikalaguna martxan jartzeko saiakera egingo da. Umeen artean ahozkotasuna lantzeko bertsolaritza saioak ikastetxeetan. Bertso eskolari laguntza eman zaio, helduen eta umeen artean bertsolaritza lantzeko. Kirolean euskararen erabilera gehitzeko plangintza egin da: udal kirol zerbitzuan, Eskoriatza Kirol Elkartean eta gainontzeko kirol taldeetan euskara gehiago erabiltzeko elkarlana abiatu da eta baliabideak ipiniko dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Eskoriatzan euskararen erabilerari buruzko datuak ez dira onak. Lan handia dago egiteko. Merkataritza “Lehen hitza euskaraz” moduko kanpaina. Eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen erabilera sustatzea eskatu zen eta kirol arloarekin hasi garen arren, beste arlo batzuk ez dira ukitu oraindik.
<ul style="list-style-type: none"> EUSKARAREKIKO KONTZIENTZIAZIOA LANDU (euskararen aldeko jarrerak) 	<ul style="list-style-type: none"> Haur Hezkuntzan gurasoen hizkuntza jarreretan eragiteko proiektua martxan dago. Euskaldunon hizkuntza jarrerei buruzko hitzaldiak eta formazio saioak eman dira (udalekuetako hezitzaileei, adibidez). 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Nortasuna sustatzeko saiakera eskatu zen eta orain arte ez dugu landu. Hurrengo urteari begira hainbat ideia lantzen ari gara.
<ul style="list-style-type: none"> HERRIKO ETORKINAK EUSKARAREN MUNDURA GERTURATU 	<ul style="list-style-type: none"> “Auzoko” proiektua jarri da martxan, hizkuntza etorkinak eta bertako herritarrak harremanetan jartzeko, euskara bitarteko moduan erabiliz. Herriko ikastetxeetan dauden etorkinendako hizkuntza errefortzuak: HH eta LH-ko ikasleentzako ludotekan, eta DBH-ko ikasleentzako euskaltegian. 	
<ul style="list-style-type: none"> EUSKARAZKO KULTUR ESKAINTZA AREAGOTU 	<ul style="list-style-type: none"> Umeendako zinea neguan. Pirritx eta Porrotxen emanaldia. Merkaturatzen diren euskarazko dokumentalen emanaldiak. 	<ul style="list-style-type: none"> Udalak antolatzen ez duen eskaintzan (hitzaldiak, ikastaroak...) oraindik ere txikia da euskararen erabilera.

